

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2020 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak zergen aplikazioari eta tributu prozedurei lotuta egiten dituen pertsonatze jakinarazpenak arautzea**

Jakinarazpenak zerga prozeduren ardatzetako bat dira, eta, beraz, Zerga Administrazioa gaituta dago bere egintzak jakinarazteko bitarteko elektronikoen bidez, bulegoan bertan edo zuzenean eta pertsonalki, baliabide ez elektronikoen bidez, kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzetan.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egin behar dituen jakinarazpen eta komunikazioak ahal dela bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, eta, betiere, Zerga Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izatera behartuta daudenei.

Hala ere, jakinarazpenen eta komunikazioen sistema hau ezin daiteke zurruna izan, eta horregatik, kasu sorta bat jasotzen da, non jakinarazpen eta komunikazio horiek elektronikoak ez diren baliabideen bidez egin baitaitezke. Ezartzen dira kasuak ere, non kasu batean ere ezin daitekeen jakinarazpen eta komunikaziorik egin bitarteko elektronikoen bidez, hala nola: jakinarazi beharreko egintzarekin batera elementu batzuk eransten badira ezin direnak bihurtu formatu elektronikora edo egintzak bulegoan bertan edo elektronikoa ez den beste modu baten bidez egin behar badira arauak berariaz halaxe xedatzen duelako.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiak egoki irizten dio bulegoan bertan jakinarazteko sistema hau erabiltzeari, hala badagokio.

Hortaz, foru dekretu honen xedea da arautzea, araudiak baimentzen dituen kasuetarako, bulegoan bertan jakinaraztearen araubidea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

##### 1. artikulua. Helburua

Foru dekretu honen xedea da arautzea Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bulegoan bertan egiten dituen jakinarazpenak, zergen aplikazioarekin eta zerga prozedurekin zerikusia dutenak.

##### 2. artikulua. Nola jakinarazi bulegoan bertan

Zergapekoa edo haren ordezkaria zehazten diren bulego publikoetara joanda jakinaraziko da bulegoan bertan, administrazio egintzaren jakinarazpena jasotzeko.

Jakinarazpenak jasotzeko hamar eguneko epea izango da, kasuan kasuko iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita.

Aurreko apartatuan adierazitako jakinarazpenak jasotzeko hamar eguneko epea igarota, ez bada inor agertu, jakinarazpena egintzat joko da legezko ondorio guztietarako, epe hori bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

**3. artikulua. Bulegoan bertan jakinaraztearen salbuespenak**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak bulegoan bertan jakinarazi ahalko du, zerga araudian hura erabiltzea aurreikusita dagoen kasuetan.

Inola ere ez zaie bulegoan bertan jakinaraziko hauexei:

a) Jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez jasotzera behartuta dauden pertsonak eta erakundeak, urtarrilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuak, zeinak arautzen baititu Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak baliabide elektronikoen bidez egiten dituen jakinarazpen eta komunikazioak, bere 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

b) Jakinarazpenak jakinarazpen elektronikoen sistemaren bidez jaso nahi dituztela borondatez adierazi duten pertsonak.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abuztuaren 4a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**